


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**SAN MARTIN 26**

Egilea eta data: Manuel Echave, 1890
(Ez da jatorrizko proiektuaren planorik espedientean)

Deskribapena

Katedrala inguratzen duten bizitegi eraikinak Jose de Goicoak ezarritako multzo eredu jarraituz proiektatu, eta 1895 eta 1905 urteen artean eraiki zituzten, eraikuntza neogotikoa baino pixka bat beranduago. Lau bloke oso eta San Martin kalera ematen duten bi etxadi aurrealde. Etxadi bakoitza kantoiko edo fatxada bikoitzeko mehelinen arteko etxebizitzet osatua dago. Guztien kanpoaldeek tratamendu bateratua dute. Hala ere, zenbait kasutan fatxadako erritmoen eta barruko propietateen artean desfasea dago. Behe oina, lau goi oin eta estalkipeko oina dituzte (azken horrek bao txiki batzuk irekita ditu erlaitzean). Etxebizitzet fatxadek kalitate handia dute, arkitekturen eta eraikuntzari dagokienean. Tradizio neoklasikoa, eragin eklektikoen xehetasunak dituzte baina forma neurritsuekin. Goicoak hemen ordena orokorreko ideian batean zuen konfiantza adierazi zuen, hots, fatxada guztietan seriean eta aldaketarik gabe aplikatzeko proportzioen sistema batean. Maila zehatzago batean harlanduaren profila eta marrazkia, balastradako errematea, plazaren iparraldeko arku multzoa, eta arotzerien tonu grisaren eta hareharriaren arteko konbinazio berezia nabarmentzen dira.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihala, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturen proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berriazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak: behe oineko fatxadako harlanduzko estaldura (karrerapearen barrualdea).
 - B.- Fatxadaren elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak; burdineria balkoietan; pertsiana tolesgarriak eta arotzerien jatorrizko formatua; begiratokiak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: "Artzain Ona" E mailako multzo katalogatuaren barruan egotearen ondoriozkoak; ez dira jasodurak baimentzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak:
 - * Behe oineko harlandua berreskuratzea (karrerapearen barrualdean) eta, zaharkituta egonez gero, haren orde, harlandu horrekin lotutako irudiari eusten zaiola bermatuko duten beste soluzio batzuk ezartzea (plakak, etab.).
 - * Loiola kaleko pertsiana tolesgarriak berriro jartzea.
 - * Behe oineko baoen jatorrizko konfigurazioa leheneratzea.
 - * Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.